




EAEko esportazioak %0,7 jaitsi ziren urrian

Ondasunen esportazioak atzerrira
Urte bakoitzeko urria. Milioi euro




Urrian, EAEtik atzerrira bidalitako ondasunen esportazioak %0,7 jaitsi ziren, aurreko urteko aldi beraren aldean. Azken hilekoetan bezala, bilakaera hori batez ere produktu energetikoen beherakadak eragin zuen (-%35,4), baina energiaz bestelako ondasunek aldakuntza tasa positiboari eutsi zieten (2,5%).

Iturria: Eustat.

Hoteletako gaualdiek gora egiten jarraitzen dute

Hoteletan igarotako gaualdiak
Urte bakoitzeko azaroa. Milakoak




Azaroan, Euskadiko hotel establezimenduetako gaualdiak %8,8 gehitu ziren, aurreko urteko hileko beraren aldean. Guztira ia 500.000 gaualdi erregistratu ziren, hau da, serie historiko osoan azaro batean inoiz lortu den kopururik handiena.

Iturria: Eustat.



Zerbitzuen negozio zifra %1,4 murriztu zen

Zerbitzuen negozio zifra
Urte bakoitzeko urria. Indizea




Iturria: INE.

Zerbitzuen negozio zifra %1,4 murriztu zen urrian EAEn. Jaitsiera hori gorabehera, indizeak lortutako maila serie historiko osoko bigarren daturik altuena da urriko hilabete batean, 2022ko erregistroaren ondoren. Bestalde, sektoreko enplegua %1,2 areagotu zen aurreko urtearen aldean.

Industriaren negozio zifrak okerrera egin zuen urrian

Industriaren negozio zifra
Urte bakoitzeko urria. Indizea



Iturria: INE.

INEk argitaratu berri duen informazioaren arabera, **industriako negozio zifra %1,6 jaitsi zen aurreko urteko aldi beraren aldean.** Hala eta guztiz ere, beherakada hori bigarren hiruhilekoan eta uda hasieran izandakoak baino apalagoa da, orduan %7ko jaitsiera ere erregistratu baitzen.